BERMEOKO UDALA

## BERMEOKO AUZOETAKO 2019. URTEKO JAIAK FINANTZIATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ZEHATZAK

IN-E 180/04-19

| UDAL SAILA: | LUGINTZA SAILA |
|---|---|
| INSTRUKTOREA: | Susana Regidor Lardies (Kulturako Teknikari-Koordinatzailea) |
| BALORAZIO BATZORDEA: | Lugintza Batzordea |
| ERABAKIA HARTUKO DAUEN ORGANOA: | Tokiko Gobernu Batzarra (TGB) |
| DIRU-LAGUNTZAREN ATALA: | Bermeoko auzoetako jaiak finantzatzeko diru laguntzen programa |
| KODEA: | KU 14- 5 |
| AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA: | 42.000 € (00900-33830-481.03.03) |
| BERAU EZARRITAKO LORTU NAHI DIRAN HELBURU ETA ONDORIOAK: | • Auzoetako tradiziozko jaiak bultzatu<br>• Auzotarren arteko bizikidetza bultzatu<br>• Bermeoko auzoen artean harremanak sendotu<br>• Herriari ezagutzera eman auzoak eta euren ohiturak<br><br>Bermeoko Udalak, herriko auzoetan egiten diran ohiko jaiak bultzatu nahi dau, gitxienez 6 auzoetan. |
| EPEA: | 1. Eskariak aurkezteko epea, oinarri zehatzak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da.<br>2. Eskariak aurkezteko epea, auzo bakotxeko jaiak ospatu baino 45 egun arinago amaituko da.<br>3. Justifikazinoa egiteko epea, jaiak egin eta gehienez hiru hilabeteko epean amaituko da.<br>4. Urritik aurrera egiten diran auzoko jaien kasuan, epe muga 2020ko urtarrilaren 10a izango da, justifikazinoa egin ahal izateko. |
| BALORAZIO IRIZPIDE ZEHATZAK: | (see table below) |

| | |
|---|---|
| Programatutako egitarauaren garrantzia kontuan hartuko da eta modu berezian baloratuko dira izaera tradizionala, herrikoia eta herrian sustraituta dauden ekitaldiak eta jaiak badira | 30 puntu arte |
| 2 urte arte<br>3 urtetik 14 urtera arte | 5<br>15 |

| | |
|---|---|
| 15 urte baino gehiago | 30 |

| | |
|---|---|
| Programatutako ekitaldiek aurreko urtean izan duten herritarren parte-hartzea | 20 puntu |
| 300 pertsona arte<br>300 pertsonatik gora | 10<br>20 |

| | |
|---|---|
| Programatutako ekitaldietan euskararen erabilera | 20 puntu arte |
| Idatziz<br>Idatziz eta ahoz | 10<br>20 |

| | |
|---|---|
| Udaleko helburu estrategikoekin bat etortzea eta euskal kulturaren ekitaldiak izatea | 10 puntu |

| | |
|---|---|
| Programaren interesa eta aniztasuna | 10 puntu arte |
| Umeentzako ekitaldiak<br>Nagusientzako ekitaldiak | 5<br>5 |

| | |
|---|---|
| Norbere finantziazinoa edo beste diru iturriak eukitea, udaleko dirulaguntzaz gain | 10 puntu arte |
| Aurrekontuaren %5etik %20ra arte<br>Aurrekontuaren %20a baino gehiago | 5<br>5 |

**ESKATZAILEAK:**

a) Pertsona fisikoak eskatu ahal izango dau honeek baldintzak beteten badauz: auzoko alkatea izatea.

b) Pertsona juridikoak eskatu ahal izango dauz, adibidez, auzoetako jai batzordeak, honeek baldintzak beteten badauz:

b.1. Auzo alkatea zuzendaritza batzordean egotea.

b.2.- Irabazi asmo bakoak izatea.

b.3.- Eusko Jaurlaritzako Alkarteen Erregistroan sartuta egotea.

b.4.- Egoitzea Bermeon eukitea eta bere jarduerarik garrantzitsuenak herri honetan garatzea, batez be, Bermeoko auzoetan jaiak edo ekitaldiak antolatzen.

b.5.- Dirulaguntzea eskatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordainduta izatea. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau.

b.6.- Identifikazino fiskaleko kodea eukitea eta egunean egotea betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan.

Kasu bietan, Bermeoko Udalak aurreko urtean dirulaguntzaren bat emon badeutso, dirulaguntza horren kontra egindako gastuak, ondo justifikatuta eukitea.

Auzo bardineko eskaera bat baino gehiago jasoten bada, Udalak bakar bat onartuko dau.

**DIRUZ LAGUN**

Arlo honetako diru laguntzak emongo dira honako gastu honeek finantzatzeko: musika saioak, kultura arloko saioak, kirol saioak, umeentzako ekitaldiak,

| | |
|---|---|
| DAITEKEEN PROGRAMAREN AZALPENA: | azpiegitura, kaleak apaintzeko apaingarriak eta jaia girotzeko beharrizanak, publizitatea, oroigarriak eta sariak. Jatorduak onartuko dira, beti be, aurrekontu osoaren % 25a baino gitxiago bada.<br>Ez dira finantzatuko ondorengo gastuak: ostalaritzakoak, egonaldiak, luxuzko gastuak, banku-interesak, administrazio-zigorrak, merkatuko balioa balio altuagoak diran gastuak… |
| PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA: | Dirulaguntzak emoteko prozedura: konkurrentzia ez lehiakorra<br><br>Dirulaguntza eskaria Udaleko eranskinean aurkeztuko da, egoitza elektronikoan, Berhaz bulegoan edo Kultura eta Hezkuntza Sailean, datu guztiak ondo bete ondoren.<br><br>Eskatzailea pertsona juridikoa bada, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko da:<br>a) IFKren fotokopia (aldez aurretik aurkeztu ez bada).<br>b) Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan egunean egotearen egiaztagiriak. (Edo Udalari baimena emon ziurtatzeko)<br>c) 2019 urteko proiektua eta aurrekontu zehatza, jagokon eranskinean zehaztuta.<br>d) Alkarteko estatutuen fotokopiak, eta zuzendaritza batzordeko kideen izendapena eguneratuta, baldin eta lehenago aurkeztu ez badira Kultura eta Hezkuntza Sailean.<br><br>**<u>Akatsak zuzentzeko epea</u>**<br>Dirulaguntza eskarian ez badira eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun eukiko dauz akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen danetik kontatzen hasita. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da.<br><br><u>Dirulaguntzak emoteko prozedura</u><br>Konkurrentzia ez lehiakorra sistema erabiliko da, behin gitxieneko diru-kopurua lortuta, diru kopuru hori programa bakotxean lortutako puntuazioari jagokon portzentaia aplikatuta doituko da, taula honetan adierazita dagoen eran: |

| Programari emondako puntuak | Diru laguntzaren % |
|---|---|
| 86 puntu baino gehiago | Aurrekontuaren %100a arte |
| 71etik 85 puntu bitartean | Aurrekontuaren % 90a arte |
| 30etik 70 puntu bitartean | Aurrekontuaren % 80a arte |

1. Eskatzaile batek ezin izango du **5.000 €** baino gehiagorik jaso.
2. Aurkeztutako proposamenek **gitxienez, 30 puntu** lortu beharko dabe dirulaguntza bat jasotzeko.

<u>Dirulaguntzak ordaintzea</u>

Bermeoko Udalak dirulaguntzak ordaintzeko, aurretiko ordainketak egingo dau. Dirulaguntzearen %80a, programa osoa burutu baino lehen ordainduko da eta dirulaguntzearen beste %20a, ekintza justifikatzen danean. Kontuan izan behar da, emondako kopuruak, justifikazioagaz batera berrikusiko direla. Dirulaguntzea ondo justifikatzeko, eskaeran agertzen dan aurrekontuaren %100a fakturakaz

justifikatu behar da, nahiz eta dirulaguntzearen kopurua txikiagoa izan. Hasierako aurrekontua eta justifikatutako gastua gitxienez %80an bat etorri beharko dira, bestela, aurkeztutako justifikazinoari jagokon benetako dirulaguntza zein dan eskatzaileari azalduko jako eta beharrezkoa balitz, dirua itzultzeko eskatuko deutso, justifikatu ez dan zenbatekoaren proportzinoan.

Justifikazino txostenak Lugintza batzordeak aztertuko dauz.

**Dirulaguntzearen justifikazioa**

1. Dirulaguntzearen onuradunak 2019. urteko dirulaguntzearen justifikazioa egin beharko dau, Udaleko eranskinean, egoitza elektronikoan, Berhaz bulegoan edo Kultura eta Hezkuntza Sailean, ondo beteta eta eskatzen diran dokumentuak ekarrita, diruz lagundutako ekintza egin eta gehienez hiru hilabeteko epean.
2. Ebaluazio-memoria Udaleko eranskinaren arabera: egindako ekintzen garapena, parte hartzaileak, balorazioa eta balantze ekonomiko osoa.
3. Ordaindutako faktura originalak edo fotokopia konpultsatuak. (Udaleko Berhaz bulegoan egiten dira). Egiaztapena egin eta gero, originalak bueltatu egingo dira. Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikaziorik, horreek ez badabe balio diru-laguntzearen helburuak lortzeko.
4. Fakturetan enpresaren izena, IFK edo IFZ, faktura zenbakia, data, kontzeptua, zenbatekoa, BEZa eta eskatzaileren datu fiskalak azaldu beharko dira.
5. **Tiketak** onartuko dira, beti be, datuak zehaturik agertzen badira eta **justifikazio osoaren %25a baino gehiago ez badira**. Autopistako tiketak, garraio publikoko tiketak eta aparkalekuetako tiketak onartuko dira, beti be aurkeztutakoak helburuagaz bat datozenean.
6. Egindako publizitatearen kopiak: programak, kartelak, argazkiak edo beste dokumentu grafiko baten ereduren bat, urtean zehar ez badabe aurkeztu. Horreetan **Bermeoko Udaleko logoa** agertu beharko da.
7. Dirulaguntzagaz egin beharreko programa ez burutzeak edo dirulaguntzea ez justifikatzeak aurreko dokumentazioaren arabera, edo epez kanpo justifikatzeak dirulaguntzea galtzea suposatuko dau, ordaindutako kopuruen itzulketagaz, gehiengoz 30 eguneko epean.

**Akatsak zuzentzeko epea**

Justifikazinoan ez badira eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun eukiko dauz akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen danetik kontatzen hasita.

| | |
|---|---|
| PROGRAMA HAU EGITEKO AURREIKUS DAITEZKEEN KOSTUAK DIRUZ LAGUN DAITEZKEENAK: | |
| JARRAIPEN ETA EBALUAKETARAKO ADIERAZLEAK: | • Jai bakotxeko partaide kopurua, gitxienez 300 pertsonakoa izatea. |

| | |
|---|---|
| HONEKIN LOTUTAKO AGIRIAK: | |
| GENERO ERAGINA: | Bat ere ez |
| 1/1982 LOaren arabera argitagarria ez den emakida: | Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoa.<br>EZ |